EGK-k agerraldia egin du Eusko Legebiltzarrean

- Enpleguaren Euskal Lege Proiektuaren inguruan ekarpenak aurkeztu ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Legebiltzarrean.

Bilbon, maiatzaren 31n. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Euskadiko Legebiltzarrean agerraldia egin du gaur goizean, Enpleguaren Euskal Lege Proiektuaren inguruan ekarpenak egiteko eta gazteen kalitatezko enplegua defendatzeko.

EGK-k bere ikuspuntutik Enpleguaren Euskal Lege Proiektuaren inguruan landu beharreko erronkak proposatu ditu. Gazteek bizi duten prekaritateari aurre egiteko Lege Proiektua gaurkoratzea beharrezkoa dela adierazi du Iratxe Uriarte Eigurenek (EGK-ko presidentea). Haatik, Enpleguaren Euskal Lege Proiektuaren inguruan landu beharreko erronkak proposatu ditu EGK-k.

Hauek dira EGK-k egindako proposamenak:

- Kalitatezko enplegua eta soldata duinagoak behar dituzte gazteek euren etorkizuna hipotekatu gabe, emantzipatu eta bizitza proiektu autonomoa martxan jarri ahal izateko .
- Langabezia-tasaz eta datu kuantitatiboez haratago begiratzea, eta eskaintzen diren kontratuen eta enpleguen kalitatea ere kontuan hartzea, baldintza duinak bermatzeko.
- Ez sustatzea lanpostuak betetzeko aparteko kontratazio-formulak.
- Neurri gehiago martxan jartzea emakumeen eta gizonen arteko aldeak desagerrarazteko, berdintasun-planak edo diskriminazio positiboa, besteak beste.
- Lanpostuaren ezaugarriei buruzko informazio osoa eskaintzea.
- Laneko istripuak eta gaixotasunak prebenitzeko beharrezko planak eta neurriak bultzatzea, osasun- eta segurtasun-baldintzak bermatuz.
- Ez eman aditzera enplegurako formula magikoa direnik ez lan-emigrazioa, ez autoenplegua eta ezta ekintzailetza ere. Aukera horiek eman behar dira baina informazio guztia eskainita: arriskuak barne. Bide hau hartzen duten gazteei eskaini behar zaizkie finantzaketarako aukerak, aholkularitza eta jarraipena.
- Kalitate-ikuskapenak eta isunak areagotu behar dira aurreko guztia behar bezala betetzen dela bermatzeko.

Gazteriaren Kontseiluak urteak daramatza gazteen eskubideen eta hauek merezi duten bizitza duinaren alde borrokan. Ezinbestekoa da eskubide guztiak behar bezala betetzen direla aldarrikatzea, gizartean hain orokortu eta onartua dagoen prekaritateari aurre egiteko.

EGKtik aurrera ateratzen den diskurtsoa, proiektu, txosten eta egunerokotasuneko lana sare sozialetan zein webgunean daude eskuragarri. Gogoratu Emantzipa...Zer? lantaldean parte hartu ahal dutela 16 eta 30 urte bitarteko gazteek, enplegu eta etxebizitzaren inguruko politika publikoak zein gai ezberdinak lantzeko eta esperientziak zein iritziak partekatzeko. Lantaldearen bileren deialdi guztiak gure sare sozialetan argitaratzen dira.

Informazio gehiago:

komunika@egk.eus

688675932 (Mirene)